

Ipuinak, tabuekin hausteko

Xerardo Méndez



Colón-en jaioa da, 1964ko urtarrilaren 24an. Hiru urte zituela, sendiarekin batera Galiziara itzuli eta urte betez biziko da As Barreiras izeneko tokian, Poboeiros parrokian, Castro Caldelas. Urte bete beranduago, Ourensera abiatzen da, egun bizi den tokira hain zuzen.

Batxilergoa ikasten du “As Lagoas” institutuan. Han piztuko zaio literatura

eta musikarekiko grina, eta institutuan bertan antolatutako poesia lehiaketa irabaziko du. Klasikoen liburu sorta jasoko du saritzat, distraitu eta ahazkorra den gizon honek oraindik ere gordetzen omen duena.

Politikarako, dioenez, dudazko bokazioak ERGA taldean izen ematera eraman zuen 1980 eta 1981 urteetan, eta AN-PG historikoan ere bai. Hilabete gutxira utziko zituen taldeak biak. Horregatik arestian aipatu dudazko hori.

Hamazazpi urterekin Fisika estudiatuko du Santiagon, baina ikasi, dioenez, gutxi ikasi zuen. Eta bere literatur, politika, zientzia, kirol eta poesia kezka guzti horien emaitza urria izanagatik, ez bada Esquíó-ko bost azken aukeratuen artean aukeratua izatearena, eta dirua eta pazientzia agortuta dituelarik, Ourensera itzuliko da berriro, eta, han, dionez, unibertsitateko hainbat irakasleen bihotz zabaltasunari esker, lizentziatu egingo da azkenik. Santiagon eman zituen azken hilabeteetan, eleberrigintzari ekingo dio, baina ez du argialetxeen oniritzia jasoko. Txirripaz, dionez, irakasle postua lortuko du bi urtez Parada Justel kalean zegoen Colexio Sueiro ikastetxean, egun itxita dagoena. 1996an, oraingoz azkena duen liburua argitaratzen du *As horas que nos quedan* izenburu profetikoa daraman lana, lanbidea zuen ikastetxeak urte horretan bertan itxi baitzituen bere ateak, eta eskola partikularrak ematen hasiko da.

Urtebete langabezian eman ondoren, Colexio San José ikastetxean hasiko da lanean, Progreso kalean, eta bere izate kuadrofrenikoa –dionez, hobe multifrenikoa esatea– ongi moldatu zen garaia eta instituzioak eskatzen zuten esparru askotariko irakasle poliedrikoaren perfilean. Irakaskuntza eta ikaskuntzari buruzko ikerketa prozesuari ekingo dio orduan, eta bakarka ikasteko bideak erraztuko dituzten lantresna informatikoak diseinatuko ditu. Ondorioz, baliabideak eskaintzen dituen “Son un labrego... do tempo dos Sputniks” izeneko CD-a landuko du, dioenez, literaturak baino diru-sarrera txikiagoak ekarri dizkion lana.

Bizi

Xerardo Méndez

Bizi, amets egin... Zein da ezberdintasuna? Hark, umilak printzipe egiten zituenak, hura, argi eta bide izan zena, lore eta bizitza, ez da amets baten memoria baino. Orain, Aketaton-eko hondarretan koiotea uluka ari direnean, orain, langileen bizkarretan zigorrak berriz ere jotzen duenean, orain, Osiris-en oboloa berriro ere esperantza denean, argiaren eta edertasunaren egunak gogora ekartzea ilunabarrean galduriko ametsa dirudi, helduaroan galduriko esperantza, zahartzaroko ipuin ergela. Denbora idortuz doan begi hauek izena eman zioten eguna ikusi zuten: gure jauna Iparraldera egindako bidaiatik bueltan zetorren, eta tulek biltzen zituzten altxorren artean emazte berri bat zekarren, eta hark, esklabuak gizon egin nahi izan zituen poetak, izen hau eman zion egoki: Nefertiti. Heltzen den ederra.

Egunsentia bezain dirdiratsu, ederrak distantziak gorde zituen, eta nerabe suminduak lorategietako bazterretan bilatu zuen, poemen pozoia edan zuen, eta Amenhotep lagundu zuen langile eta esklabuen auzuneetara eginiko bisitetan. Amenophis III zaharra hilzorian zen eta Sitamunek gutiziaz begiratzen zion hurrengo faraoi izango zenaren gorputzari. Bazterrik bazter jarraitzen zuen bere anaia, eta geure jauna, Egiptoko printzea, atzerritarra zuen begiz joa. Desira indar bitxia da. Goxatzen ez duguna suntsitzera garamatza. Sitamunek Becankosengana jo zuen: apaizen printzeak ilunpeak eta kokodriloak deitu zituen, eta mutikoaren arbuioaz gogaiturik, Seten haragitzea zela esan zion. Printzeak kargua kendu zion begirada nardagarritz. Gau hartan faraoi zaharra hil egin zen, eta Sitamun erotu egin zen.

Nefertitiren atea mantso-mantso zabaldu zen, izan ere, adime-nak beste batek irrikatzen duena ez oparitzea aholkatzen baitu. Orduan, portuko langileen enbaxadak Becankosen iloba salatu zuen tenpluko hondasunak bere egitearren, haren etxe berriaren erai-kuntzan xahutu izanagatik hileta-erritueta dirua. Eta hura, atze-rritar ederraren bihotza mirariren batek zabaltzearen esperoan zeharkatu zuena portua, frogak eskatu zituen, kasua aztertu zuen eta tenploko altxorretik harturiko txanponetariko bakoitza buel-tatzera zigortu zuen. Enbaxada zuzentzen zuen eskriba karguz igo zuten eta eskriba erreala izendatu zuten, eta hildakoen dirua bizi-dunentzako etxe bihurtu zuen dekretua idatzi zuen. Itsasadarrak hitz eder haiek entzuten, eta gure jaunak zeruetako ateak zabaltzen zirela pentsatu zuen.

Osirisen tenplu guztietan, ezkontza zorigaiztoko zantzuez josi zen. Baina, agerraldien leihotik, gure jaunak herriaren zoriona ikusi zuen eta irribartsu, berpiztu zen. Osirisen apaizak entzuteaz asperturik, *sed*-a ospatu zuen, hasiera berri bat izaten ahalegindu zen, eta ez dagoela Jainkorik odol, heriotz eta sakrifizioz ohoratua izan nahi duenik. Esan egin zigun, berdinak izateko, ez genezala itxaron heriotzak berdindu arte.

Amets egin... Bere aurrean belaunikatu eta makurtzea debekatu egin zigun. Errituak eta desfileak indargabetu zituen. Eta aurreztu zuen diruarekin fellah-entzat etxeak egitea agindu zuen. Txiro eta kolonoen artean lurra banatu zituen, eta zergak ordainarazi zizkien aberatsei. Eskale ibiltzea eta sorginkeria debekatu zituen. Etxeetan animaliak jendeengandik urruntzea agindu zuen, eta komunak eraikitzea agindu zuen, eta baita etxe guztietan ur-lasterra jartzea ere. Hiri berriak sortu zituen. Eta hau guztia existitzen zen jainko bakarraren agindua zela esan zuen, forma ez zuen sortzaile bakar hori, Aton, eta bera zela haren ordezkaria.

Baina Atonen agindu arraroak ematen zituen. Ez zuen intsentsurik nahi, eta Ekialdearekin zegoen merkatal harremana hautsi egin zuen. Ez zuen nahi gizonezkoek emakume bat baino gehiago izan zezaten, ezta emakumeek bi seme-alaba baino gehiago izaterik ere. Eta heriotzaren eta haratagoko bizitzaren jainkoak gurtzeari uko egin zion, gizonek dugun bizitza hauxe baita.

Arraroa da, heriotzaren jainkoak bizitzaren jainkoen gainetik nagusitu ohi dira. Gudarostea lizentziatu zuen, eta Mitanniren eskaerei muzin egin zien. Iparraldeko probintziak galdu egin zituen. Senarrak biziki haserretu ziren. Intsentsu-merkatariak apaizei ordaindu zieten. Izuak jota zegoen jendea. Kalera atera ziren, estatuak leporagabetu zituzten, erregearen eskribak sutara eraman zituzten, bizitzaren jainkoari ez zioten entzun: haratagoko bizitzara

igarotzeko egiaztagiria nahi zuten. Errege poeta nazkatu zen: ez zuen deus ulertzen. Ederrak atzaparrak atera zituen hura amorrarazteko, baina denborak distantziak ereiten ditu, eta ederrak ez zion oinordekorik eman. Emaztetzat haren alabetariko bat hartu zuen, eta apaizen predikuak gehiago aztoratzea baino ez zuen lortu, matxinadak gorrotoz betetzea. Pozoiz beteriko kopa eman nion arratsalde triste batean, hark esan bezala, izan ere, betiereko erreinua ez da mundu honetakoa, bera ez zelako inoiz mundu honetakoa izan. ■